

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es



Edurne Koch, Iñaki Alegria eta Irati Iciar ikastaroen kartelarekin.

UEU

UEUk 7 ikastaro antolatu ditu Iruñean eta beste bat Beran

Iruñeko jarduerak lehen aldiz NAPIko egoitzan, Hezitzaile eskolan eta Katakarak-en egingo dira

DN Iruñea

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 35 jarduera (ikastaro eta jardunaldien artean) antolatu ditu aurtengo udarako, horietatik zazpi ikastaro Iruñean egingo ditu eta aurtun, lehen aldiz, Beran

de berdinetik jarraitzea erabaki dugu”, esan zuen UEUren Nafarroako arduradun den Edurne Koch-ek ikastaroen aurkezpenan. “Gaien aldetik, beti bezala, aniztasuna nagusi” izango direla esan zuen.

Iruñeko ikastaroetako bi Nafarroako Gobernuak Hezkuntza departamentuarekin elkarlanean antolatu dituzte, eta arrazoi horregatik doan eskainiko dituztela esan zuen Koch-ek. Honaikoa dira: *Ahokotasuna hizkuntza-geletan: entzumena, mintzamena eta ahoko elkarrengina* (ekainak 26-28) eta *Visual thinking, ikasten ikasteko tresna* (ekainak 26-27).

Beste bost ikastaroak honakoak izango dira: *ETAren V. Biltzarra eta ziklo armatu iraultzailearen hasiera* (ekainak 27-28); *Hazi, Hezi, Eraiki (II): Haurrak espazio-sortzaile* (ekainak 26-27); *Euskara eta etorkinak. Nola lagun dezake euskarak bizikidetzak hobetzen?* (ekainak 26-27); *Gazteak: parte-hartze politikotik boteretzera?* (ekainak 28) eta *Egitatezko bikoteak eta umeen zaintza euskal Zuzenbide Zibilean* (ekainak 26).

beste bat ere bai. Iruñean, gainera, ikastaroak emango diren tokiak berriak izango dira: alde batetik Iruñeko NAPI, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren egoitzan, Nabarrera kalean, bestetik, hezitzaileen eskolan (Ezpeleta jauregian) eta azkenik beste bat Katakarak liburu dendan.

Iruñeko ikastaroak ekainaren azken astean egingo dira. “Iaz ikastaroak San Ferminen aurretik antolatzen erabakia hartu genuen eta erantzuna ikusita, bi-

Horrekin batera bi hitzaldi ere antolatu dituzte Iruñean: *Bullying, drama bai, aukera ere bai* (Gotzon Carcar *coach* pertsonalaren eskutik, ekainak 26an) eta *Haur (tran)sexualitatea ulertereko gakoak* (Iñaki Goñi irakasle eta sexologoaren eskutik, ekainak 27an).

Beran lehen aldiz

Beran, aldiz, irailean helduko dira UEUko ikastaroak. Aurtun, lehen aldiz, ikastaro bat antolatu dute han irailaren 30ean: *Biohondakinen konpostaren erabilera* izenburupean hain zuzen ere. Sei formatu desberdineko ikastaroak daude aurtun: espezializatuak (hauek egiteko aurretik jakintza maila bat beharrezkoa da), dibulgaziozkoak (interes orokorrekoak), garapen pertsonalekoak, jardunaldiak, hitzaldiak eta tailerra.

Eibarren 14 ikastaro eta 4 jardunaldi, Baionan 5 ikastaro eta jardunaldi bat, Bilbon jardunaldi bat eta Usturibil eta Donostian beste jardunaldi bana antolatu dira aurtun.

UEUk 110 ikastaro proposamen jaso ditu. “Aukeraketa egitea zaila izan da, jasotako ideiak oso onak izan direlako”, esan zuen aurkezpenean UEUko Udako Ikastaroen arduradun Irati Iciar-ek. Laguntza garrantzitsuak daude aurtun udako ikastaro hauetan parte hartzeko. Hala, ikasle, langabetu eta jubilatuaren matrikuletan beherapenak eskaintzen ditu UEUk, eta Euskal Herriko hainbat udalek diru laguntzak emango dituzte beraien herritarrentzat.

Aurtengo udako ikastaroak Bilbon abiatuko dira, *Ingurune digitalaren ikerketak Euskal Herriari* jardunaldiekin. “Ikergazte kongresuaren oihartzunak oraindik irauten duelarik aurkezten ditugu aurtengo ikastaroak, Elkar Ekin lelopean”, azaldu zuen aurkezpenean UEUko zuzendari Iñaki Alegriak. Bere esanetan, Udako Euskal Unibertsitatea ez litzateke posible izango elkarlanik gabe. “Ikastaro hauek auzolanean antola-tzen ditugu pertsona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik ekitendiegia proiektu berriei, jakintza berriei”.



Liburuaren azala.

DN

Aleksievitx Nobel bielorrusiarra euskaratu dute

DN Iruñea

Iker Sancho Insaustik (Lazkao, 1975) Svetlana Aleksievitx idazle, kazetari eta gidoilari bielorrusiarren *Gerrak ez du emakume aurpeirik* liburu euskaratu berri du Elkar argitaletxean, Jokin Zaitegi Saria irabazi ondoren. Sari hau Nobel saridunak euskaratzeko sortu zen Arrasaten, beraz Aleksievitx-en txanda zen, Nobela 2015ean irabazi baitzuen.

Ia milioi bat izan ziren II. Mundu Gerran parte hartu zuten emakume sobietarrak: mediku eta erizainak, frankotira-tzaileak, tanke-gidariak, etabar. Lekukotasun horiek bildu ditu egileak, haien oroitzapenak eta inpresioak biltzeko, ez kazetarien ohiko galde-eran-tzunekin, baizik eta konfiantza emanez, lasai hitz egin zezaten.

1984an argitaratu zen liburu hau lehengo, Gorbaxoven garaiko Perestroikari esker, baina hainbat zati zentzurak eta autozentzurak estali edo moldatu zituzten. 2002an berriatzi zuen Aleksievitxek bere lana, lehenago ezabatutako pasarteak sartuz. Idazle bielorrusiarra Ukrainan jaio zen eta errusieraz idazten du. 1983az geroztik estilo dokumentalean oinarrituriko hainbat liburu argitaratu ditu.



JUUL LITERATURA KANPAINAREN SARIEN BANAKETA, LESAKAN

Nafarroako Ikastolen Elkarteak haur eta gazteentzako urtero antolatzen dituen hauteskunde literarioen idazle eta ilustratzaile bozkatuenei sariak banatzeko ekitaldia egin zuen Lesakan, Harriondoa Kultur Etxeko oholtzan. Aurtengo ekitaldia 2017ko Nafarroa Oinezan mezu eta izaeraz kutsatu zen. Tantirumairu Ikastolako ikasleen presentziarekin. Sari banaketan, ondorengo idazle zein ilustratzaile elkartu ziren: Margarita del Mazo, Peru eta Txomin Magdalena, Bertol Arrieta, Estibaliz Vivanco, Lur Gallastegi, John Andueza, Jasone Osoro, Toti Martínez de Lezea, Jon Arretxe, Fernando Morillo, Iván Landa, Eider Eibar, Jokin Mitxelena eta Iosu Mitxelena.

NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

agenda

Ekainak 7, asteazkena

Haur programazioa euskaraz
HAURRENDAKO TAILERRAK
Dindaikale, jolas eta tailerrak. Dindaia Fundazioa
Iruñeko Zidadela. 17:00. Sarrera librea

Jasangarritasunaren gela
HITZALDIA
Baratzea udan
Hizlaria: Oscar Ibáñez Salinas
Ingurumen Hezkuntzako Museoa. 19:00 Sarrera librea

Ekainak 8, osteguna

Kantu eta Hitz 2017
KONTZERTUA
Hitza. Bidaia
Erraldaien Txokoa. 20:30. Sarrera libre aurretik
gonbidapena hartut

Argibide gahiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es